

## Bazegonk amairu jarrai gabe?

### *Jarrai in the 60s, the basque avant-garder theatre*

IDOIA GEREÑU

*Recibido: Abril de 2018. Aceptado: Mayo de 2018*

**Laburpena:** Jarrai antzerki-taldeak euskal antzerkigintzaren norabidea aldatu zuen ia hamar urteko ibilbidean, 60ko hamarkadan. Frankismo garaia bete-betean zela, gazte-kuadrilla bat elkartu eta, gerraurreko ohiturei jarraiki, ohol-tza gainera igo zen, antzerkia aitzakiatzat hartuta. Xedea euskara zein euskal gizartea esnaraztea izan zen. Ordurako, belaunaldi berriek mundua ulertzeko bide berriak proposatu zituzten munduko zenbait herrialdeetan; mugimendu abangoardistak arte-diziplina anitzen bidez adierazi ziren, eta sentipen hau Euskal Herrira iritsi zen. Aitzina pausoak emateko gogoz, Jarrai antzerki-taldeak beste herrialdeetan eszenaratzen ari ziren abangoardiako antzerki-testuak euskarara ekarri zituen. Ildo beretik, euskaraz sortutako testuak ere eszenaratu zituen aurrerago. Molde estetiko eta dramatiko berriak proposatzeaz gain, gazte euskaradun kulturazalearen irudi eta eredu bihurtu ziren Jarraiki-deak, beste diziplinei modernitaterako bidea erraztuz.

**Hitz-gakoak:** Jarrai antzerki taldea, euskal antzerkia, abangoardia, teatro berria, 60ko hamarkada, frankismoa, euskalgintza.

**Abstract:** The theater group Jarrai changed the direction of Basque theater in a nearly ten year career, in the 60s. During the Franco regime, aiming at reviving both the basque language and society, some young people gathered together on stage, following the tradition prior to the war. By that time, the new generations proposed in different countries of the world new ways of understanding it; the avant-garde movements were expressed in different artistic disciplines, and this feeling arrived in the Basque Country. The theater group Jarrai wanted to take some steps forward, and so translated into Basque some avant-garde theater texts that were staging in other countries. In this sense, they also staged some texts produced in Basque. In addition to proposing new aesthetic and dramatic molds, Jarrai became the image and model of the new basque young cultural movement, facilitating to other artistic disciplines the path towards modernization.

**Key words:** theatre group *Jarrai*, basque theatre, avant-garde, modern theatre, 60s, francoism.

## 1. GARAIA ETA TESTUINGURUA

Korronte iraultzaile eta abangoardistek ludia artegatu zuten xx. mendearen erdialdera. Gizarte eta kultura nagusi guztietan aldaketa ikaragarriak gertatu ziren bi mundu-gerren ondoren. Eguneroko bizimoduan lorratza utzi zuen gertaera lazgarri frankok, eta haiek guztiak, nola edo hala, artearen munduan islatu ziren modu adierazkorrean. Diziplina batzuetan abangoardiek ibilbidea lehendik gidatua bazuten ere, antzertiari garai loratua orduan iritsi zitzaion, eta antzerkia egiteko forma berrietan taularatu ziren oinazez jantzitako istorio konprometitua. Bizitzaren alde gordin eta zorrotzenak ezagutzeko beharra azalarazi nahi izan zuen antzertiak urte haietan. Mimesi zaharkitutik haratago, gorputzari eta barruak esandakoari egin zitzaion jaramon, giza erraiak mintzaraziz. Genero *collageak* erabili eta oholtza gainean diziplinartekoak indartu ziren. Kultura ezberdinak eta herri-sentimendu atxikiak uztartu ziren. Taldeak lehenetsi, aktore banakoen ospea urritu eta kolektiboak nabarmendu ziren. Ordena eta logika deuseztatu zen. Bizitzaren benetako izaera kaotikoa erakustera irten ziren konpainia berri, esanguratsu eta eraginkorrenak. Lanean aritzeko molde abangoardistak ospetsu egin ziren eta teatro konprometitua, teatro krudela, teatro existentsialista eta teatro absurdoak Europa eta Amerikako eszenatoki berritzaileenak bete zituzten lehen aldiz.

Antzertiaren aireberritzeak egitasmo, egoera eta historia ezberdinen barruan jazo ziren eta herrialdeek gerrateen ondorioak norik bere erara nozitu zituzten. Antzertia egiteko espazioak, denborak, legeak eta aukerak desberdin banatu ziren mugen arabera. Frantziak aurrea hartua zion Europa osoari mende hasieratik, eta xx. mendeko bigarren erdialdean ere beste herri batzuek izan ez zuten askatasunaz baliatzeko abagunea izan zuen, antzertian. Espainian, aldiz, luze jo zuen askatasunez adierazteko eta sortzeko aukerak, herritarrak beldurrak, hirak eta debekuak mutututa baitzeuden. Euskal Herriak, aipatu bi errealtateak eza-gututa eta historia tristea bizita, hizkuntza zulotik ateratzeko aitzakian berpiztu zuen antzertia: gerraurrekotik jaso, hasiera batean; arnas fresko berria eskainiz, berehalaxe.

1940ko hamarkadan hasi ziren jada euskal antzerkizale gutxi batzuk euren herri eta esparru xumeetan elkartzen eta emanaldi bat edo beste, era sakabana-tuan, eszenaratzen. Gerraurreko antzezlanen estiloari jarraiki (batez ere iparraldean, lehenik, eta Gipuzkoan, gerora), antzerki-taldeek lanari ekin zioten. 50eko hamarkadak aurrera egin ahala, antzerki-mugimendua euskaltzaletasunaren berpiztearekin batera iratzarri zen. Donostia izan zen hegoaldeko taldeen gotorleku eta erreferentzia urteetan, eta antzerkigintza, amateurtasunean, euskararen biziraupena bermatzeko eta herri-nortasunarekiko atxikimendua azalarazteko landu zen. Testuinguru horretan sortu zen Donostian, 1957an, *Jarrai* antzeztaldea, eta 1968ko salbuespen-legea iritsi zenera arte iraun zuen.

## 2. JARRAIEN SORRERA

1957an, gazte euskaltzale bakan batzuk Euskaltzaindiaren inguruan juntadi-zoak egiten eta ostiraletako bileretara agertzen hasi ziren. Tartean ziren Piarres Lartzabal, Iñaki Irigarai eta Iñaki Beobide. Azken hau Zumaia hiriburura

tokialdatu zen familiarekin, eta hiriko erdal girotik urrundu nahian eta euskararen bultzadarako ekintzaren bat proposatzeko gogoz, euskarazko testuen irakurketa dramatizatuak egiteko burutapena izan zuen. Hala, Koldo Mitxelena, besteak beste, Gipuzkoako Aldundian zuen egoitzako bulegoan entseguak egiteko aterpea utzi zien. Talde txiki bat elkartu eta gerraurrean hain boladan egon zen antzerkigintzara gerturatu zen, 1959ko uztailean Euskaltzaindiak antolatutako sariketa batean parte hartzeko asmotan. Marianistetan burutu zen lehiaketa, eta taldeak lehen sari partekatua eskuratu zuen<sup>1</sup> *Etxe Aldaketa* eta *Motza Herriyan* antzezlanekin.

Lehiaketan parte hartu behar zutela eta, taldeari izena jartzeko garaia egokitu zitzaionean, Euskaltzaindiko lemari heldu zioten, eta *Ekin eta Jarrai* horretatik erabaki zuten *Jarrai* izena ezartzea antzerki-talde berriari.

Hastapenak horrela, Jarraikideek beti utzi izan dute argi antzerkiarekiko zaletasunak baino gehiago, euskarazaletasunak sortu zuela antzerki-taldea. Antzera egitearen artea, antzertia<sup>2</sup>, euskara jendartera hedatzeko aitzakia izateaz gain, hizkuntza ikasi eta helarazteko modu praktikoa besterik ez ei zen izan, hasiera batean. Gerora, halere, arituan-arituan, antzerkizaletasunarekiko grina piztu zitzaion taldekide askori.

### 3. PARTAIDEAK

Donostiak bazuen antzerki-ohitura lehendanik. Horretan aritzen zen *Euskal Izkeria eta Iztunde Eskola* izeneko antzerki-talde ezagun bat, gerraurrean Toribio Alzagak sortu zuena eta gerraostean, *Jarrairekin* batera, bere jardunari berriz heldu ziona. Hala, donostiar tradiziozale, euskaldun eta antzerkizaleek, usantzaz, bertan hartu zuten parte. Horretaz gain, taldeari *Jarrai* izena eman zion kuadrilla gaztea lanean hasi zen eredu berriak eraiki eta txertatu nahian. Belaunaldi berria indar hegemonikoei aurre egiteko asmotan elkartu zen, gaztetasunaren bipiltasuna agerian zutela. Donostian bizi zirenez gain, inguruko herritar euskaldunak ere bildu zituen taldeak. 50 bat izeneko zerrenda osatu izan da taldekide guztien deiturekin.<sup>3</sup> Tartean, aktore zein zuzendariak, oroitarazleak, eszenografoak, jostunak, estetizista eta ile-apaintzaileak, artistak eta teknikoak aurki ditzakegu. Ondoan izan zituzten, bestalde, dramagileak, itzultzaile-moldatzaileak, ideolo-

<sup>1</sup> Lehen saria Alegiko *Kimuberriak* eta Tolosako *Lizardi* taldeekin batera banatu zuten.

<sup>2</sup> *Teatro-jardunlari jakintsuen arabera Teatroa lehen-lehena antzertia da, hots, zerbaiten antzera egiña ... Ain zuzen izen hori Lizardi jaunak asmatu zuan...* (Labaien, Tolosa)

<sup>3</sup> Iñaki Agirre, Edurne Albisu, Joseba Aldanondo, Iñaki Arbelaz, Jose Mari Aristi, Juan Antonio Arozena, Nekane Arrizabalaga, Atanasio Arruabarrena, Txaro Arteaga, Mikel Azpiazu, Jose Antonio Azpiroz, Iñaki Azurza, Itziar Barriola, Iñaki Beobide, Ashen Egaña, Igone Egaña, Begoña Eizmendi, Belen Erguin, Karmele Esnal, Joxe Manuel Esnal, Xabier Etxabe, Mikel Forkada, Xabier Goenaga, Koro Gonzalez, Goikoetxea ahizpak, Ioseba Goñi, Arantxa Gurmendi, Enrike Heras, Iñaki Iburguren, Juan Mari Indo, Jose Ramon Irazustabarrena, Iñaki Irigaray, Amaia Lasa, Xabier Lete, Miren Karmele Maisuetxe, Itziar Olaizola, Marga Otaegi, Miren Igone Rekondo, Ramon Saizarbitoria, Eustakio Sukuntza, Miren Tolaretxipi, Rikardo Ugarte, Lucia Unanue, Mertxe Uranga, Mari Karmen Uranga, Felix Uranga eta Aurora Urbizu.

goak, babes-emaileak eta abar. Horien guztien artean, gerora euskal kulturgingintzan ezagun bihurtu diren hainbat izen aipa ditzakegu.

#### 4. IBILBIDEA ETA ANTZEZLANAK

*Jarraik* 1959. urtean Euskaltzaindiak antolaturiko sariketan parte hartu aitzinetik, euskarazaletasunaren zereginari eta engaiamenduari heldu, eta jendaurrean, Donostiako Julio Urkixo liburutegian, euskarazko irakurketa dramatizatuak aurkezteari ekin zion. Eginkizunean, orduko Joxe Artetxe liburutegiko eta artxiboko arduradunaren laguntza jaso, eta, euskaraz izanagatik ere, arazorik gabe antolatu zituzten Lizardi, Karraskedo eta Nemesio Etxanizen testuen irakurraldiak. Ibilbidearen hastapenetan landu zituzten drama gehienak gerraurrean idatzitakoak eta antzeztutakoak izan ziren. Taldeak publikoaren aurrean eszenaratzeari sariketan heldu zion. Ondotik, Pedro Muñoz Secaren *Nor da Erruduna?* taularatu zuten Antzoki Zaharrean, 1960ko Tomas Deunaren egunean. Lehen aldiz, gerora maiz egin zuten modura, erdaratik euskarara itzulitako antzezlan bat jokatu zuten. Bestalde, eguna ondo aukeratu izan zen, urte amaierarekin batera euskal usadioen ospakizunak betetzeaz gainera, gerraurreko antzerki-ohiturei eusteko borondatea erakutsi baitzuen taldeak. Gisa horretan, *Jarrai* historian atzera begira jarri zen lehen urteetan eta ahazturiko sentipen bat berreskuratu guran hasi zen antzeztaldea; hau da, taldekideek genero kostunbristak bilduko lituzkeen eta malenkonia-kutsua zeren emanaldiak taularatu zituzten; itzuliak batzuk eta euskaraz sortutakoak, besteak.<sup>4</sup>

Itzulpenei toki handia eskaini zien *Jarrai* antzerki-taldeak bere ibilbide osoan zehar, alabaina, itzultzeko mandatua ematerakoan, testu hautaketak geroz eta xede zehatzago eta argiagoarekin eginak izan ziren. Taldeak beste norabide bat hartu eta, 1962tik aitzinera, herri aurreratuetan abangoardia aurkezten ari zen antzezlan horiexek euskarara ekartzeko asmoa adierazi zuen. Gazteak kemendu egin ziren; euren ideiak indar boteretsu zaharkituen aurka agerrarazi nahi izan zituzten, eta bai European, bai AEBn, iraultzaile bihurtu ziren oholtza gaineko jardun haiexek euskaraz jartzeko eginahala zor diegu. Tennessee Williams, O'Neill, Miller eta Ibsenen lanak euskal hiztunengana helarazteko ausardiaz jardun ziren. Taldean abangoardiarantz eragile ezberdinak izenda zitezkeen arren, izen bat beste guztiei gailendu zitzaien: Mikel Forkada eszenografoa. Madrilen dekorazio ikasketak bukatu orduko eta Donostian dekorazio-denda berriztatzaile bat zabaldu ostean, Forkada Jarraikideekin harremanetan jarri eta, lehenbizikoz, euskal antzerkiari proposamen eraberritzaile eta minimalistak opaldu zizkion. Eszenak, eszenografiak eta atrezzoak sasoi historikoarekin bat zetozen artelan estetiko bihurtu ziren, eta, estreinakoz, oholtza-gaina modako eta erakargarri jantzi zen. Horretaz gain, Forkadak, eszenografo-lanetan aritzeaz aparte, zuzendari-lanak ere egin zituen ikuskizun ezberdinetan, eta taula gaineko proposamenak esku limurtzailez gidatu zituen.

<sup>4</sup> Ikus 1.4.1. puntua

Arrakasta ez zen, ordea, egun batetik bestera heldu. Publikoa, teatroa egiteko estilo berri hura onartzetik haratago, euskaltzaletasuna ulertzeko moduak asaldatu zuen. *Jarraik* egoerak adierazteko moldeen zimenduak birsortu zituen, eta ekarritako aldaketak inguruko ikusleak, kritikoak eta beste taldeetako partaideak aztoratu zituen. Artea, berrizalekeria eta sormena txalotuak izan ziren; geldiro lehenik, eta mardulago, gero. Teatro kostunbrista baztertu izana eta aurreko belaunaldiaren usantzak alboratzea jasangaitza gertatu zitzaion zenbaiti. Hala, teatro berriaren eta teatro zaharraren arteko liskarra piztu zen. Bi hitzetan, teatroa garaiko gizartearen ispilua besterik ez dela baieztatu zen, belaunaldien arteko talkaren isla. Egoerak egoera, laudorioak eta gaitzespenak tarteko, aurrerakoien diseinuei egin zien jaramon *Jarraik*, gogotsu eta setati. Taldeak *teatro berria* zeritzona definitzea itzulpenei esker lortu zuen, eta euskal teatro nazional berriari atek ireki zizkion. Gabriel Aresti izan zen estilo berria eta bidea finkatuko zituen adiskidea, eta, beraz, arrimura ekarri eta eurentzat propio idatzitako tragikomedia adostu zuten lagun artean: *Beste mundukoak eta zoro bat* antzezlan. Antzertia egiteko era aldatu zuten, hala, Jarraikideek 1964an. Arestiren obraren menean, gizakion ameskeriaren eta egiaren arteko hari fina tenkatu zuten taldeko partaideek eta, hein berean, pastorelei erreferentzia ere egin zieten. Drama estilo intimista horri Xalbador Garmendia gazteak idatzitako *Histori triste bat* izeneko obrak eman zion segida, eta hor gorpuztu zen, nolabait, euskal teatroaren norabide berria.

Hemendik aurrera, 1968an salbuespen-legea iritsi zen artean, *Jarraik* Ionesco, Dürrenmatt, Camus eta Frisch bezalako dramagileen itzulpenak euskaraz taula gainera ekartzen jarraitu zuen. 1968. urte horretan, legearen inposizioa medio, euskal kulturak isilaldia jasan behar izan zuen, beste behin. Jazarpen-egoera horrekin batera sakabanatu ziren antzerkilariak, eta *Jarraik* betikoz oihala jaurti zuen.

## 5. ERANSKINA

	ANTZEZLANA	AUTOREA	ITZULTZAILEA
1	<i>Nor alkate? (irakurketa)</i>	Piarres Larzabal	X
2	<i>Irulearen negarra</i>	Juan Gorostidi	Mold. Nemesio Etxaniz
3	<i>Ezkondu ezin ziteken mutilla</i>	Xabier Agirre Lizardi	X
4	<i>Motza erriyan</i>	Jose Artola	X
5	<i>Etxe aldaketa</i>	Jazinto Karraskedo	X
6	<i>Nor da erruduna?</i>	Pedro Muñoz Seca	Nemesio Etxaniz
7	<i>Ito edo ... ezkondu</i>	Victor Ruiz Añfbarro	Nemesio Etxaniz
8	<i>Odol bidean</i>	Telesforo Monzon	X
9	<i>Kristalezko iruditxoak</i>	Tennessee Williams	Julen Lekuona
10	<i>Ertzaña etxean</i>	John Priestley	Julen Lekuona

	ANTZEZLANA	AUTOREA	ITZULTZAILEA
11	<i>Arresi latza</i>	Joaquín Calvo Sotelo	Lukax Dorronsoro
12	<i>Udaberriko gau hartan lorik ez</i>	Enrique Jardiel Poncela	Lukax Dorronsoro
13	<i>Nor alkate? (antzezpena)</i>	Piarres Larzabal	X
14	<i>Bestelakoa</i>	Eugene O'Neill	Nemesio Etxaniz
15	<i>Beste mundukoak eta zoro bat</i>	Gabriel Aresti	X
16	<i>Andere etxea</i>	Henri Ibsen	Joxe Agirre
17	<i>Historia trixte bat</i>	Xalbador Garmendia	X
18	<i>Denak nere semeak</i>	Arthur Miller	Juan Antonio Letamendia
19	<i>Laratzean sua</i>	Jazinto Karraskedo	X
20	<i>Maizter berria</i>	Eugène Ionesco	Iñaki Beobide
21	<i>Ordu eroslea</i>	Jacques Deval	Luken Larreategi
22	<i>Gizon zuzenak</i>	Albert Camus	Xalbador Garmendia
23	<i>Gizona ta kidea</i>	Friedrich Dürrenmatt	Antonio Maria Labaien
24	<i>Su emaileak</i>	Max Frisch	Antonio Maria Labaien

## 6. EMANALDIAK

Lehen irakurraldiak Donostiako liburutegian muntatu eta gero, *Jarraik* egindako emanaldi haiek Antzoki Zaharrera eta auzoetako parroketako aretoetara iritsi ziren. Aurrerago, herriz herriko birak antolatzeari ekin zioten, interesa hedatu zenean, aldrietara barreiatzeko nahia baitzegoen. Han bidaiatu zuten Gipuzkoan barrena Andoainera, Añorgara, Arrasatera, Azpeitira, Berastegira eta Bergarara. Ezin ahaztu Deba, Eibar, Hernani, Hondarribia, Ordizia, Errenteria, Tolosa, Urretxu Zaldibia eta Zarautz ere. Dena den, muga hauetatik kanpo Bilbon ere antzeztu zuten behin baino gehiagotan, eta Lekeition eta Zaldibarren ere izan ziren antzeztuak. Nafarroan, Etxarri Aranaz eta Iruñea ere izan zituzten antzeztoki. Dokumentatutako herriak besterik ez dira hauek guztiak. Esandakoez gain, emanaldi bakoitzeko alokatu ohi zuten furgoneta hartu, kargatu, eta beste hainbat tokitan ere izan ziren, Euskal Herrian beti ere, zerrendatu herrietakoak baino emanaldi gehiago egin zituztela bai baitakigu, zenbaki biribilik eskuartean izan ez arren.

Osterantzean, antzeztan bakoitzaren estreinaldia, beste Donostiako taldeen antzera, Donostiako Antzoki Zaharrean prestatu izan zuen *Jarraik*, Tomas Deuna festaren aitzaki-maitzakian edota antzerki-astearen baitan. Teatro Klubak, Donostiako antzerki-taldeko udaleko bilkurak, antolatzen eta izenpetzen zituen antzeztuak, eta eszenaratzeko beharrezko zen izapide oro bere sinadurapean aurkeztu ohi zuen. Klubari edo udalari esker, ez dirudi *Jarraik* euskararen gai-

neko arazorik sekula izan zuenik bere emanaldietan. Frankismo garaian eta zentralismoa puri-purian zen mende-sasoian, zentsurak lan eskergea izan zuen kulturgintzan. Hala ere, euskal antzerkiari eta *Jarrai* antzeztaldeari zehazki, zentsuraren atzaparrek ez zioten eragin zauri mingarriegirik sekula. Zergatik eta Teatro Klubaren parte izateagatik, zatirik handienez, eta itzulitako antzeztan irudikatzeagatik, osterantzean. Gerora bizi izan zuen euskal antzerkiak zentsuraren gurgila errotik, salbuespen-legea gertatu ondorenean.

## 7. GARAIKO BESTE TALDEAK

Euskal Herrian, antzerkigintza iparraldean eta hegoaldean banatua zegoen 50eko eta 60ko hamarkadetan. Hegoaldeko herri askotan antzeztaldeak orduantxe berjaio baziren jai-giroko antzezkizunak prestatzeko, Ipar Euskal Herrira mugimendu hau Bigarren Mundu Gerra amaitu ondoko heldua zen. Piarres Lartzabal eta Daniel Landart gaztea izan ziren iparraldeko antzerki-mugimenduko bi kide ezagun. Herrietako talde amateurrek nonahi (ipar zein hego) aurki zitezkeen, gerrak hautsi zuen nazioa berreskuratu nahian. Iparraldean, *Herria* aldizkariak jaso zituen emanaldietako erreferentzia ezberdinak; hegoaldean, kasu isolatuetan, eguneroko prentsa arrunta izan zen ikuskizunen berri eman zuena.

Haatik, hegoaldean prentsa nagusiak euskal antzerkigintzaren mintzoa *Jarrai* eta *Euskal Izkeria eta Iztunde Eskolaren* artean ardaztu zuen. Talde hauek izan ziren teatro zahararen eta berriaren arteko bereizketaren adierazleak. *Euskal Izkeria eta Iztunde Eskolak*, xx. mendearen hasieran Toribio Altzagak fundatu ondoren, Maria Dolores Agirre zuzendariaren eskutik zabaldu zituen ateak 1953an, gerraurreko helburu eta zereginei utsiz: antzerkiaren bidez, euskal ipuin, mito, esamolde, hiztegi eta lexikoak gizareratzea. Egiteko horretan, *Jarrai* antzerki-taldea hariaren beste muturrean kokatu zen, baliabide zein xede bertsuei ikuspegi berritzaileagoa eta gazteagoa eskaini baitzien. Egiatzki, antzerkigintza gazteria berpizteaz batera suspertu zen, baina herria ez zegoen inor gutxiesten, eta bakoitzak bere tokia eta publikoa jaso zituen.

*Jarrai*en bereizgarri abangoardistak bereganatuz, Bilbon, denbora gutxiz baina zeregin adierazgarritz, *Kriseilu* izeneko antzerki-taldea sortu zen 1962an. Gabriel Aresti bidelagun zutela, Begoña Foruria aritu zen zuzendari, eta Ugo Betti, Bertol Brecht eta Ricardo Salvaten testuak antzeztu zituzten. *Jarrai* eta *Kriseilu* antzerki-taldeen arteko harreman estuak ekarri zuen Arestik *Jarraiarentzat* idatzitako *Beste mundukoak eta zoro bat* drama-konposizioa. Ildo bertsuan, Ricardo Salvat eta Kataluniako antzeztaldeen ere harremanak izan zituzten *Jarraiko* taldekideek.

## 8. EUSKAL ANTZERKIARI ESKAINITAKO BERRIKUNTZA

Kataluniarekin, *Kriseilurekin* eta ipar zein hegoaldeko herrietako beste talde gazteekin harremanak izateak *Jarrai*ri onura, ziurtasuna eta konfiantza berretsi zizkion. Europar aurkezten ari ziren proiektuekin eta diziplina desberdinak

batzen zituzten lanekin erkatuz gero, *Jarrai* antzerki konpainia eskasa bezain erkina zatekeen, baldin eta Euskal Herriko artegintzan adierazpen askatasunak betorik ez balu. Nolanahi ere, laudagarria zen *Jarrairen* biografia garaiko hizkuntza-ohitura hegemonikoak, politika eta egoera soziala kontuan hartuta. Taldeak, modu batean edo bestean, euskaldunak harro sentiarazi zituen: garaiko testu literario entzutetsuenekin jantzi zuen herritarra, antzerkia egiteko forma berriak mendi inguruko auzoetaraino eramane zituen, eta artearekiko kezka eta jakin-mina euskaradun xumearen eskubidea ere bazela defendatu zuen.

Horrek guztiak alde zuzenetik estrategikoki pentsatutakotik ez zuen asko, kontrakoa dirudien arren. Herri txikietako elizpeetan Ionescoren *Maiñter berria* obra dramatikoaren elkarriketa absurdoa ematen aritzeak, kasurako, aski izan zuen gazte ausardiatik, gutxi oilarkeriatik, eta batere ez aurreikuspenetik.

Zer erran, bestetik, euskaraz Aresti eta Garmendia jaunek sortutako antzezlanen inguruan. Antzerki-testuen gaitegiari probokazio existentzialista erantsi zioten. Norbanako gazteen bizimodu modernoari, gazte horien ausardiari, izuei eta mamuei ahotsa eman zitzaizkien. Ordura arte euskal gizartean bekak ote zenaren eta ez zenaren arteko desenkusan, tabuzat jotako emakumearenganako tratu txarrak, bikotekideen arteko botere-harremanak, prostituzio eta diruzalekeriak, erruki, erruduntasun, hilketa eta suizidioak azaleratu ziren lehenekoz euskal jendartera, aitzakiatzat antzertia erabilita. Belaunaldi berriak hogeitaka urteko isilaldia eten, eta, euskaraz belaunaldi berriaren nortasuna deskribatzeko gozoz, kezkak, ametsak, lilurak eta grinak kanporatu zituen.

Adin guztietako jendea gerturatu zen *Jarrairen* antzezlanak ikustera, eta emozio nahiz ikasgai berriak bizitzera. Adin guztietako jendeak munduan gertatzen ari zen hura euskarak ere izan zezan eskatu eta eskertu zuen, hasieran jendartean sortutako ezin ulertuak eta errietak, denborak aurrera egin ahala, alboratuta.

## 9. BESTE ESPARRU ETA DIZIPLINEKIN HARREMANAK

*Jarraik* gauzak esateko molde ezberdina eskaini zion euskal antzertiari. Handia izan zen bere eginkizuna hamar urte luzeetan barrena, eta itzela lorpena. Euskal antzertiaren historian *Jarraik lehena* eta oraina markatu zuen. Alabaina, antzetzaldearen helburua euskararen aldeko jarduna izanik eta bere izen ona eta entzutea areagotu ziren heinean, taldeak beste zeregin batzuetan esku hartu zuen. Ildo horretatik, zombait *Jarraikidek Artzaiak* euskarazko eskaut-taldea fundatu, eta haurrentzako *Lapurtxoa* eta *Makiña* bezalako antzezlanak prestatzen aritu ziren.

Kazetaritza-lanetan afizionatu, eta, 1963. urtetik aurrera, *Zeruko Argia* egunkarirako antzerki-artikuluak idazten ere aritu ziren antzerkilariak, *Antzertik* bere garaian egin zuen bezalaxe, euskal teatroaren momentuko erradiografia egiteko eta ikusgarritasuna emateko xedez. Bestalde, euskal irratigintza egundoko aurrerapausoak ematen ari zela probestuta, *Jarraik* lagundu nahi izan zion arlo horri ere. Hala, Beobideren etxean elkartu eta irratsaioak grabatu ohi zituzten, ondorenean, Segura, Loiola eta Arrate irratietako uhinen bidez, euskarazko



programazioa heda zedin. Hala, haurrentzako ipuin-disko bat argitaratu eta *Pan-pin* aldizkaria ere kaleratu zuten.

*Jarraik* antzerki-generoan egindako lan mardulaz aparte, euskal kulturari zegozkion beste esparru batzuei bidea zabaldu zien. Antzerki-taldea osatzea izan zen Beobide jaunak eta bere taldeak lehenengoz adostu zutena, antzerki-gintzak gerraurreko euskaltzaleak bildu izan baitzituen. Haatik, gizartea garai berrietara egokitzeko premiak euskaltzaletasuna arte plastikoetara eta kantugin-tzara ere gertura zedin nahi izan zuen. Arte-genero ezberdin hauetan iaioak ziren artista gazteak, antzerkitik urrun baina euskaltzaletasunetik gertu, *Jarrai* antzerki-taldeko partaideekin nahastu ziren, ideia berrien aldeko bulkada norabide berean emateko asmotan. Hala sortu zituzten *Gaur* eta *Ez dok amairu* talde ezagunak, amets bereko gazte gogaideekin. Forkada izan zen *Gaur* taldeko bilkuretan lagunetako bat, eta Lete *Ez dok amairu* taldearen arimaren zati izatera iritsi zen. Kontuak kontu, *Ez dok amairuk* talde-izaera lortu artean eta euskal kantagintzaren lehen entzunaldiak emateko kantariak prestu agertu zirenean, kantu-taldeak *Jarrairen* izenean bidali zituen lehen eskaerak udaletara. Victoria Eugeniako emanaldi gogoangarri hartan, Gurmendi eta Saizarbitoria Jarraikideak aritu ziren aurkezpenak egiten. 1966an izan zen guztia, euskal kulturaren berpizkundearen aroan.

## 10. ONDORIOAK

*Jarrai* euskal gizartearen aldaketaren adierazle bat gehiago izan zen 60ko hamarkadan. Abangoardiako antzerkia euskarara ekarriz aurrerapausoak eman bazituen, jendartean gertatzen ari zena azaleratzea eta irudikatzea izan zen bere erdiespena. Kementsuak izan ziren Jarraikideak jardunbidean. Une historikoa-rekin bat zetozen ibilera berrietara egokitzea ez zen lan mardula izan, eta gibeletik zetozen gazteei baliabideak ematea ondare bihurtu zuen antzetzaldekak. Hamar urteko joan etorriak, sormen-prozesuak, bilerak, entseguak, beste herri eta kultur eragileekin izandako harremanak, eta eremu tradizionalekin bizi izandako liskarrak ondorioak izan zituen, gazteengan batez ere, eta euskal nortasunaren eraikuntzan aurrerapauso galanta eman zen.

Motibazioak bokazioak baino bulkada handiagoa izan zuen antzerkigintzan *Jarraiko* kideen artean. Halere, sekula baino gehiago hurbildu zen euskaldun publikoa eremu teatralaren ikerketara; euskaldunon mundu txikitik globalizazioaren handitasuna ezagutzeko parada izan zen abangoardiako antzerki-generoak euskaraz interpretatu ziren aldi oro. Jakin-min eta ikasketa horiei esker antzerkiarekiko zaletasuna ogibide bilakatu zuten, urteek aurrera egin ahala, taldekide batzuek. Beste batzuk, aitzitik, arte-diziplina ezberdinetan edota euskal mugimendu kulturalean aritu dira eta dihardute, egun. Halako zurari halako ezpala baitario.

Azkenak esate aldera, sortzaile eta adoretzu gogoratzen dute *Jarrai* haren garaikideek, izan partaide, izan ikusle. *Jarrai* probokazioa izan baitzen euskal gizaldi zaharkituarentzat; emozioa eta itxaropena herrira ekarri zuen talde zirikatzailea, ameslarientzat. Belaunaldi berriagoontzat, aldiz, gertakari ezezaguna

izan da, *Ez dok amairu* baino lehen existitu zenik ere, orain gutxi arte behintzat, entzungabe genuena.

## BIBLIOGRAFIA

- Aresti, G. (1986) *Euskal teatro berri baten beharra: Euskal komedia. Artikulak. Hitzaldiak. Gutunak. Gabriel Arestiren literatur lanak-10*. Zarautz, Susa.
- Arozena, E. (2000) *Hiru antzerkigileen baratza jorratzen*. Donostia, Egan.
- Arozena, E. (2006) *Zentsuraren gurpilean euskarazko antzerkia 1940-1980*. Oiartzungo udala.
- Foruria, B. «Kultura egiteko egon behar da zabal zabalik eta beldur barik». Elkarrizketa (Iñigo Astiz) in *Berria* (2014-10-19).
- Gereñu, I. (2016). *Jarrai (1959-1968), euskal antzerkiaren ikur* doktore-tesia. <http://hdl.handle.net/10016/23081>
- Landart, D.(1985). «Iparraldeko teatro-giroaz», *Jakin* 37, pp. 89-94
- Lete, X. «Arestiren Beste mundukoak eta zoroakekin teatro berria asi zela, esan genezakegu, dio Letek». Elkarrizketa (Joseba) in *Zeruko Argia* (1965-1-24).
- Olaizola, A. (2000) «Euskal Eskolaren proiektua eta GAUR taldea», in *Euskonews* <http://www.euskonews.com/0077zbk/gaia7704eu.html> (2018-03-15ean berreskuratua)
- Urkizu, P. (2004) *Maria Dolores Agirre eta Euskal Antzertia*. Donostia, Egan.